

## IRAKURKETA MINTEGIA

2018-2019. ikasturteko programaren ildo nagusiak

---

- 0-12 urte bitarteko haurrentzako literatur liburuak erabiliko dira.
- 2018an kaleratu diren liburuak irakurri eta aztertuko dira.

### HELBURUAK

- Formazioa eskaini haur literaturan eta irakurketarako dinamizazioan.
- Liburuen balorazio irizpideak eta aurkezpen fitxak landu.
- 2018an 0 eta 12 urte bitarteko haurrentzat euskaraz kaleratu diren literatura liburu guztiak irakurri eta bakoitzaren aurkezpen bat idaztea web orrirako.
- *Liburuen Altxorra* eta beste zenbait proiektutarako liburu zerrendak osatzea.
- Urtero euskaraz haurrentzat argitaratutakoaren *kalitatea neurtzea*, estatistikak osatuz.

### GIDARIAK

- Imanol Mercero, literatura kritikaria.
- Ane Lapizondo, irakaslea.

### DATAK, ORDUAK, LEKUA

- Donostiako Haur Liburutegian egingo dira: Fermin Calbeton, 25 (Alde zaharra).
- Saioak hilean larunbat batez: 10:00etatik 13:00etara izango dira. Egutegi zehatza:

2018	2019	
Irailaren 22a	Urtarrilaren 19a	Apirilaren 13a
Urriaren 20a	Otsailaren 9a	Maiatzaren 18a
Azaroaren 10a	Martxoaren 9a	Ekainaren 15a
Abenduaren 1a		



## **PROGRAMA- FORMAZIOA**

Irakurketa mintegiaren ohiko saioez gain, aurten ere aparteko formazio saio monografiko bat prestatu dugu. Hain zuzen, **Iratxe Retolaza eta Amaia Serrano** unibertsitateko irakasleak gonbidatu ditugu honako ikastaroa eskaintzera: ***“Komikiari begiratzeko modu berriak: haur eta gazteen literatur ohiturak suspertzeko bideak”***.

Bertan, euskal komikiaren historiari buruzko zertzelada nagusiak eman eta genero honek dituen ezaugarriak aurkezteaz gain, komikiaren bidez haur eta gazteen irakurketa ohiturak suspertzeko estrategia batzuk eskainiko dituzte.

Saio monografikoa 2018ko **azaroaren 17an burutuko dugu, goizeko 10:00etatik 14:00etara, Donostiako Komikigunean.**

Formazio saio hau mintegikideei bereziki eskainia egongo den arren, publiko orori irekia izango da. Mintegiko kideentzat doan izango da. Bazkideek prezio berezia izango dute. Aurrerago zehaztuko zaizkizue formazio saio honen nondik-norakoak.

Galtzagorri Elkartea. Zemoria kalea 25, behea. 20013 DONOSTIA.  
Telef.: 943 471 487 E-maila: [galtzagorri@galtzagorri.eus](mailto:galtzagorri@galtzagorri.eus) / [administrazioa@galtzagorri.eus](mailto:administrazioa@galtzagorri.eus)